

2019KO KUDEAKETA TXOSTENA

2019an **sortutako hondakin-kantitatea** 150.751 tonakoa izan da, 2018an baino %0,5 gutxiago, eta, horrenbestez, azken urteetan emendatzen joateko izan den joera amaitzea ekarri du.

Gaikako bilketa dela-eta, 5. edukiontziazen bidez bildutako gai organikoen kantitateak %7,96 handitu direla nabarmendu behar da. Gainerakoen frakzioa, aldiz, %2,25 gutxitu da.

Berreskuratu ahal izateko gaika bereizitako bilketen kantitateak emendatu izana frakzio guztietan ikusi da: %5,6 ontzietan, %2,6 paper-kartoian eta %4,2 beiran. Bereiz bildutako bilketen kantitateak etengabe emendatzeak sortutako hondakinen berreskuratze handiagoa ekartzen du eta, horrenbestez, zabortegira isuri edo botatzen direnak gutxitzea.

2019an **berreskuratutako hondakinen kantitatea** 58.967 tonakoa izan da, aurreko urtean baino %2,3 gehiago. 2019ko berreskuratze-portzentajea sortutako hondakinen %39,12koa da, eta 2018koa, %38,07koa.

Beste alde batetik, HHTZko zabortegira botatutako kantitatea 113.968 tonakoa izan da, HHTZ 1992an martxan jarri zenetik isuri den gutxieneko kantitate historikoa. Aurreko urtearen aldean, pitin bat gutxitu da, %1,64, nahiz eta jasotako industria-hondakinen kopurua %31,5 handitu den: 2019an 6.223 tona jaso ziren, eta 2018an, 4.731 tona.

Gai organikoen bilketa bereizian 9.367 tona jaso dira, sortutako gai organikoen %17,6. Nabarmendu behar da sarbidea kontrolatzeko sistema duten edukiontziekin lan egin duten eremuetan portzentaje hori %55ekoa izan dela.

Sarbideen kontrola duten edukiontzien sistema hedatzeari dagokionez, Azpilagañan eta Artika Berrian gauzatutako proba pilotuan lortutako emaitzak ikusirik, Administrazio Kontseiluak uztailaren 2an egin zuen saioan sistema hori orokorki hedatzen hastea onartu zuen Iruñerriko hiriko eta erdi-hiriko eremuan. Beharrezkoak diren izapideak bideratu ziren 2019ko bigarren seihilekoan hasteko, eta hedatzea 2022ko abenduaren 31 baino lehen amaitzeko xedea izanda. Horrenbestez, helburu hori lortzeko lan egiten ari gara. Lan horretan nabarmendu behar da hondakinak kudeatzea arautzeko ordenantzaren aldaketa hasiera batean onetsi zela Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak abenduaren 19an egin zuen saioan, sistemari estaldura emango baitio.

Hondakinak Tratatzeko Planari dagokionez, nabarmendu behar da otsailean Iruñerriko Hondakinak Tratatzeko Zentroaren aurreproiektua idaztea lizitatu zela, eta Administrazio Kontseiluak uztailaren 2an egin zuen saioan esleitu zen. Aurreproiektu hori idazteko fasean dago, eta aurreikusita dago proiektua eta gauzatzea 2020ko lehen seihilekoan lizitatzea. Beste alde batetik, abenduaren 27an, Nafarroako Gobernuak Iruñeko Garraioaren Hiria handitzeko UPSa onartu zuen, eta horrek ahalbidetzen du zentro berria kokatzea aurreikusita dagoen lursaila eskuratzea.

Ekoizpena

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Sortutako hondakinen kantitate osoa (t)	139.399	142.214	143.352	145.779	151.570	150.751
Kilogramoak biztanleko eta urteko	387,85	394,37	396,02	399,61	411,20	403,61

Osaketa

	2016		2017		2018		2019	
Papera-kartoa	23.493	%16,4	23.796	%16,3	24.995	%16,5	25.554	%17,0
Brikak	1.936	%1,4	1.847	%1,3	1.930	%1,3	1.986	%1,3
Plastikoa	11.718	%8,2	12.252	%8,4	12.598	%8,3	13.039	%8,6
Beira	12.798	%8,9	13.320	%9,1	13.645	%9,0	14.025	%9,3
Metalak	3.276	%2,3	3.428	%2,4	3.464	%2,3	3.425	%2,3
Ehunak	4.127	%2,9	4.628	%3,2	5.164	%3,4	4.989	%3,3
Tamaina handiko gauzak	2.794	%1,9	2.624	%1,8	3.398	%2,2	2.870	%1,9
Zura	3.596	%2,5	3.757	%2,6	3.881	%2,6	3.790	%2,5
TEEHak	916	%0,6	937	%0,6	978	%0,6	1.060	%0,7
Pilak	33	%0,0	28	%0,0	30	%0,0	34	%0,0
Olioak	122	%0,1	111	%0,1	113	%0,1	117	%0,1
Beste produktu batzuk	6.169	%4,3	5.149	%3,5	11.664	%7,7	11.406	%7,6
Paper zikina, pixoihalak, etab.	9.337	%6,5	9.864	%6,8	4.776	%3,2	5.183	%3,4
Etxebizitza+udaletako inauste-hondakinak	9.774	%6,8	9.774	%6,7	11.044	%7,3	10.248	%6,8
Gai organikoak	53.263	%37,2	54.264	%37,2	53.888	%35,6	53.026	%35,2
Guztira	143.352	%100,00	145.779	%100,00	151.570	%100,00	150.751	%100,00

Sortutako hondakinak, bilketa-motaren arabera (t)

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Gai organikoen eta gainerakoen edukiontzietan	85.282	50.528	0	0	0	0
Gainerakoen edukiontzietan	**6.487	**38.157	***86.423	87.686	87.476	85.510
Gai organikoen edukiontzietan (5. edukiontzia)	*1.041	**4.766	***7.931	7.748	8.676	9.367
Ontzien edukiontzietan	7.435	7.740	7.882	8.135	8.710	9.197
Etxeko eta auzoko konpostajea	1.699	1.760	2.110	2.812	3.092	3.033
Beste bilketa batzuetan+garbiguneetan	37.455	39.263	39.006	39.397	43.618	43.644

Gai organikoen bilketa berezia hasi zen, Barañainen (2013ko azaroa)

* Gai organikoen bilketa bereziaren 2. fasea

** Gai organikoen bilketa bereziaren 3. fasea

*** Gai organikoen bilketa bereziaren 4. fasea

Hiri-hondakin berreskuratze osoaren indizearen bilakaera


	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Hiri-hondakin berreskuragarriak (t) analisisien arabera	117.024	118.894	119.412	122.076	125.968	126.058
Berreskuratutako hiri-hondakinak (t)	42.968	48.035	51.460	52.312	57.736	58.968
Hiri-hondakin berreskuratze osoaren indizea	%36,7	%40,4	%43,1	%42,9	%45,8	%46,8

Bio-hondakin berreskuratze-indizea (t) (gai organikoak, inauste-hondakinak eta konpostajea)

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Bio-hondakinak hondakinetan (t)	63.194	62.774	63.037	64.039	65.030	63.274

Berreskuratutako bio-hondakinak	12.523	15.522	18.243	18.466	20.915	20.537
Bio-hondakinen berreskuratze-indizea	%19,8	%24,7	%28,9	%28,8	%32,1	%32,5

Bio-hondakinen berreskuratze-portzentajea



Berreskuratzea, produktuen arabera (t)

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Tamaina handikoak	495	516	480	493	824	931
Berreskuratutako papera/kartoia, guztira	14.144	16.436	16.182	16.384	17.576	18.036
Beira, guztira	8.430	8.470	8.705	8.712	9.514	9.940
Metalak, guztira	970	934	947	899	976	1.038
Plastikoak, guztira	2.744	2.596	3.121	3.236	3.242	3.555
Brikak, guztira	675	632	662	612	649	665
Ehunak	550	440	426	591	884	927
TEEHak	822	857	916	937	978	1.60
Zura	1.480	1.476	1.623	1.842	2.035	2.128
Pilak	29	29	33	28	30	34
Olioia	107	126	122	111	113	117
Etxebizitzetako inaste-hondakinak	5.847	5.581	5.513	5.468	6.321	5.997
Udaletako inaste-hondakinak	3.974	3.560	3.055	2.670	2.989	2.543
Gai organikoak	1.004	4.621	7.565	7.516	8.513	8.964
Etxeko eta auzoko konpostajea	1.699	1.760	2.110	2.812	3.092	3.033
Berreskuratutako produktuak, guztira	42.968	48.035	51.460	52.312	57.736	58.968
Berreskuratutako kilogramoak biztanleko eta urteko	119,55	133,21	142,16	143,40	156,63	157,87
Ontzien berreskuratze osoaren indizea	%51,30	%51,40	%53,00	%51,70	%52,90	%53,8

Paperaren eta kartoiaren berreskuratze osoaren indizearen bilakaera

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Hiri-hondakinetan dagoen papera eta kartoia (t)	21.880	23.650	23.493	23.796	24.995	25.554
Berreskuratutako papera eta kartoia (t)	14.144	16.436	16.182	16.384	18.222	18.036
Paperaren eta kartoiaren berreskuratze osoaren indizea	%64,6	%69,5	%68,9	%68,9	%70,30	%70,6

Zaborte-gira bideratzea

	2014	2015	2016	2017	2018	2019

Zaborteigira bideratutakoen % (zaborteigira ez doan bildutako zabor guztiaren %)	44,87	47,75	49,39	49,63	53,32	54,24
---	-------	-------	-------	-------	-------	-------